

**LANKIDETZA HITZARMENA**

**Donostia Kultura eta Euskal Kultur Erakundea-**

Batetik

**Denis ITXASO** Kultura zinegotziak, **Donostia Kulturaren** izenean

Eta

Bestetik

**Pantxoa ETCHEGOIN**, **Euskal Kultur Erakundearen** izenean,

**ZERA ADIERAZTEN DUTE:**

**Donostia Kultura** 1990ean sortu zen Donostiako herritarrei kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin. Horretarako, udal jabetzakoak diren hainbat kultur eraikin eta ekipamenduko kudeaketaren ardura du.

Donostia Kulturak eskaintzen dituen zerbitzu eta jarduerak honako hauek dira: Antzerkia eta dantza, Musika, Zinema eta bideoa, Kultur Ekintza Zerbitzua, Liburutegi Zerbitzua, San Telmo Museoa eta Jaiak. Donostia Kulturak kultur disziplina guztiak jorratzen ditu eta kultur prozesuaren lau atalak garatzea du helburu: formakuntza; sorkuntza; ekoizpena eta kultur zabalkundea.

Bestalde, **Euskal Kultur Erakundea** 1990ean sortu zen, euskal kulturari sustengu aktiboa eta kreatiboa emateko helburuarekin. Euskararen eta euskal kulturaren garapena laguntzen du Ipar Euskal Herrian, bai diruz, bai teknikoki, pertsonak eta elkarteak eraman egitasmoen bidez. Euskal kultur Erakundeak kultura koordinazio eta egituratze lan garrantzitsua egiten du, elkarteen eta erakunde publikoen arteko harremanak erraztuz.

Euskal Kulturaren Erakundeak eramu hauetan egiten du lan: euskararen sustapena; literatura eta argitalpena; antzerkia eta bertsolaritza; ikus-entzuneke ekoizpena; dantza; musika; arte plastikoak; ondarea; ingurumena, eta herri kirolak.

ZERA ADIERAZTEN DUGU:

Mugazgaindiko lankidetzak europar eraikuntza prozesuan funtsezko gaitako bat dela, hain zuzen ere, lankidetzak gisa honetan hiritartasun europearraren ideia mamitzen baita.

Zentzu honetan, alor kulturean egiten den mugazgaindiko lankidetzak hau balio kulturalen sustapenarako ezinbesteko tresna gisa ulertzen dugu, sustapen hau, artista, agente eta erakunde kulturalen arteko elkar ezagutzan oinarritzen delarik.

Hala, Baiona-Donostia Eurohiriko ardatz-eragileetako bat mugazgaindiko lankidetzak kultura eremuan aritzea kontuan izanik, gure xedea bikoitza da: batetik kultura alorrean lan egiten duten pertsonen arteko ezagutzak eta ideien joan-etorria erraztea; bestetik, burutzen diren kultur jarduerak ezberdinen trukaketa bultzatzea.

Mugazgaindiko lankidetzak erakundeen arteko elkar ezagutzak biziki ahalbidetzen du, sareak finkatuz eta gure aberastasun kulturala konpartitzen laguntzen duten ekintzak elkarrekin garatuz. Zentzu honetan, aberastasun eta aniztasun horiek gure lurraldeko hiritarren artean zabaltzea da gure helburua.

Lankidetzarako hastapen hau aniztasun kultural eta linguistikoa ederresteko, zaintzeko eta sendotzeko balioko delakoan gaude. Honez gain, kultura alorrean izaten diren esperientzia eta ekimenen zabalkutzak, elkarrizketa eta elkartruke kultural iraunkorrak ezarriko dituela ustea dugu.

Hori guztiagatik, HONAKO HAU ADOSTU DUGU:

**LEHENA.- Xedea**

Alde batetik, hitzarmen honen helburu nagusietako bat bi erakunde hauen arteko **elkar ezagutza bultzatu eta sakontzea da.**

Bestalde, programazioari dagokionez, hitzarmen honen bitartez lortu nahi da **Iparraldeko euskarazko eskeintza** kulturalaren ezagutza handiagoa eta eskaintza horren **integrazioa Donostia Kulturako programazioan.**

Era berean, Donostia Kulturak ere Euskal Kultur Erakundeari emango dio ere Donostialdean diharduten artisten berri.

Batez ere hitzarmen hau kultur alor hauetan mamitu nahi dugu: ikus-entzunekoak, musika, antzerkia, literatura, arte plastikoak, bertsolaritza eta interesa sortu dezaken beste edozein. Halaber, garrantzi berezia emango zaio gazteei zuzenduriko eskaintzari.

## **BIGARRENA.- Donostia Kultura eta Euskal Kulturaren Erakundea-ren arteko elkarlana eta ezagutza bultzatzea**

Hitzarmen honen bidez, ondoko ekimenak landuko dira:

1.- Erakundeen arteko **elkarlana eta ezagutza** bultzatuko da. Hala Donostia Kulturak arreta berezia eskainiko dio Iparraldean sortzen diren kultur ekimenei. Zentzu honetan, Donostia Kulturako teknikariak Iparraldera joango dira Euskal Kulturaren Erakundeak gomendatuta, interesgarriak diruditen ekimenak ikustera.

2.- Euskal kulturaren inguruan diharduten Iparraldeko artistei eta arlo artistikoko eragilei buruz Euskal Kultur Erakundeak daukan **katalogoa eta eskeintza** Donostia Kulturak kontuan izango du, bere formatu txikiko programazioan txertatzeko.

Zentzu honetan, Donostia Kulturak ez du Iparraldearekiko ziklo berezirik sortzeko asmorik baizik eta Iparraldeko artistak eta taldeak **modu arruntean**

**integratzea** ohiko programazioan eskaintzak berak sor dezaken interesaren arabera.

3.- Kontratazioari dakokionez, Euskal Kultur Erakundeak **bitartekaritza** lana egingu du eta hala kontratuak Donostia Kultura eta Euskal Kultur Erakundearen artean egingo dira. Zentzu honetan, euskararen arloari dagokionez, Euskal Kulturaren Erakundea izango da Donostia Kulturarentzat Iparraldeko **kultur agentea**.

4.- Elkarri kultur eskeintza eta programazioari buruzko **informazioa trukatzeari**. Era honetan, Donostia Kulturak ere Gipuzkoako artistak proposatuko dizkio Euskal Kulturaren Erakundeari.

## **HIRUGARRENA.- Lan metodologia**

Hitzarmena gauzatzeko eta jarraipena egiteko. **batzorde** bat osatuko da. Batzorde hau Donostia Kultura eta Euskal Kultur Erakundeko teknikariek osatuko dute. Batzorde hau urtean behin bilduka da gutxienez. Bilera hori urrian izango da, hain zuzen ere, Euskal Kulturaren Erakundeak urteko ekoizpen-katalogoa argitaratzen duen garaian.

Batzorde honek **5 helburu** izango ditu:

- Elkarlanean egindako ekintzen balorazioa egitea
- Ikasturte berrirako kultur eskaintzak aztertzea
- Hurrengo urterako ekintzak finkatzea
- Norbere eremuan sortutako ekimen eta programa berriak ezagutzera ematea
- Lan-ildo berriak arakatzea eta aztertzea

**LAUGARRENA.- Lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan 2010. urtean egingo diren jarduerak<sup>1</sup>.**

**Literaktum-en seigarren edizioan ondoko 3 ekitaldiak programatzea:**

- Maiatzak 6 – ekainak 4:

**Erakusketa: Ikuspegi goxoak /Paisajes íntimos, Gabrielle Duplantier & Bernardo Atxaga.**

Erakusketa honek bi artisten sorlekua du oinarri. Euskal Herria. Eta bi adierazpen artistikoren arteko elkarlanetik sortua da, argazkigintza eta olerkigintza. Bernardo Atxaga idazlearen *Poemas y Híbridos* (Madril, 1990) bildumatik ateratako olerkiak eta Gabrielle Duplantier argazkilariaren irudi fatasmagorikoak elkarren ondoan, bat eginez. Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 16:00-20:30

Lugaritz Kultur Etxean.

- Maiatzak 28

**Ikusentzunekeo jarduera: Sormen performance, Beñat Achiary, Philippe De Ezkurra eta Pierre Vissler.**

Gabrielle Duplantier argazkilariak proiektatutako irudiekin batera, Beñat Achiary kantariak eta Philippe De Ezkurra soinu-joleak, Pierre Vissler-ek asmatutako ingurumen elektro-akustiko batek lagundurik, Ikuspegi goxoak erakusketaren interpretazio garaikidea eta poetikoa eskainiko dute performance batean.

20:00 Lugaritz Kultur Etxean

Maiatzak 29

**Poesia Urumea bazterrean. Itxaro Borda**

Itxaro Borda, Lara López eta José Oliver-ekin batera arituko da poesia errezitaldian.

18:00 Bernategi baserria (Loiola: kartzelaren atzekaldean)

Azkenik, Donostia Kulturak eta Euskal Kulturaren Erakundeak, egitasmo honi ekiteko eta aurrerantzean antzerako ekimenak garatzeko, lankidetzarako ahalezko eremuak elkarrekin aztertzeke konpromezua ere hartzen dute.

Donostian, 2010eko maiatzaren 20an, ale bikoitzean egina,

**Donostia Kulturaren aldetik**

**Euskal Kultur Erakundearen aldetik**

**Denis ITXASO**

**Pantxoa ETCHEGOIN**